

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 82/2019 Foru Agindua, martxoaren 27koa, A-132 errepidea Azazetatik igarotzean urbanizatzeko eraikitze proiektuaren ingurumen eraginarekin txostena egiten duena

“A-132 errepidea Azazetatik igarotzean urbanizatzeko eraikitze proiektua” izapidetu ahal izateko ingurumen eraginaren ebaluazio erraztuko prozedura egin behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko 3/1998 Legearen “C)-1-1” apartatuko I. eranskinean zehaztutako kasuen artean sartzen delako. Ingurumen Ebaluazioaren 21/2013 Legeak arautzen du prozedura (45, 46, 47 eta 48 artikulua).

Prozedura horren esparruan, 2019ko urtarrilaren 14an, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan Aldundiko Errepide Zerbitzuaren idazkia sartu zen erreferentziako proiektuaren ingurumen eraginaren ebaluazio erraztuko prozedura izapidetzen hasteko. Idazkiarekin batera ingurumen agiria erantsi zen, bai formatu digitalean bai paperean, eta proiektu teknikoaren kopia digital bat. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, 2019ko urtarrilaren 15ean, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako moduan.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2019ko martxoaren 21ean emandako ingurumen eraginaren txostenean ezarritako balorazioa, zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu foru agindu honek. Foru Agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat datoz 21/2013 Legearen 47. artikuluko hirugarren zenbakian jasotako xedapenekin.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena:

Proiektua luzetarako 253 metroko ardatz bakar baten gainean garatzen da batez ere. Zeharkako sekzio hau egingo da:

- 7 metroko galtzada (3,25 m-ko bi errei eta abiadura moteltzeko 0,5 metroko mediana).
- Espaloiak kokatzeko 1 metroko bazterbidea.
- Espaloiak kokatzeko 1,5 metroko bazterbidea.
- Espaloi gabeko 0,75 m-ko bermak zonan.
- Zabaleran 1,80 m dauzkaten espaloiak ezkerrean.
- 2,00 m-ko espaloiak eskuinaldean.
- Ardatza 15 cm mugitzen da ezkerrean espaloia handitzeko eskuinaldean.

Aurreikusi den altxadurak tartearen sarrera eta irteera sestrak lotzen ditu, zeinek ehuneko 1,69ko eta ehuneko 2,72ko malda baitaukate, hurrenez hurren.

Bi baztergune egin nahi dira autobusarentzat, bat norabide bakoitzerako, guztira 39 metroko luzerakoak, bai eta sarrera eta irteera falkak ere. Halakoetan, errepidearen plataforma galtzadaren mugaketa lerrotik hedatzen da.

Herriko garbategia inguratzen duen zonan, ibilgailuen zirkulaziorako espazioa murrizten da albo espaloiak eraikita, $r = 12$ m-ko bira erradioekin eta garbategiaren eraikinaren aurrealdean oinezkoentzako gunea eginda, zeinetan bi eslerleku eta zuhaitz bat jarri behar baitira.

Garbitegiaren alboan dagoen baskulara iristeko orain dagoen sarbidea erabil daiteke, pasabidea jarrita oinezkoentzako espaloi berriaren gainean, eta sartzeko pasabide bat edo pasabide murriztu bat izango du.

Zorurako eman den irtenbidea da 25 cm-ko legar artifiziala eta 17 cm-ko nahaskin bituminosoak.

Oraingo drainatzearen ezaugarri nagusiak mantenduko dira, hustuleku berriak jarrita eta sareta-dun ubideak berrituta espaloi berrietako ertz erretenen urak biltzeko. Halaber, eskuinaldeko albo kanalizazioa berritzen da, alde horretatik errepiderantz jaisten diren ezpondetako jariatze urak drainatzeko. Inguruan dagoen kutxatila baterantzko eta Berrón ibaiaren ibilguzantzko oraingo hustubideko loturak berritzen dira.

Zabaleran 1,80 metroko espaloi pasabidea lortzeko, Berrón ibaiaren gurutzagunearen inguruan, beharrezkoa da lauza bat eraikitzea errepidearekiko luzetara doan ibilguzaren muturrak lotzeko. Lauza diseinatu da plaka albeolar aurrefabrikatu baten bidez (neurria 1,2 x 7 m eta 20 cm-ko ertza), zeinak bi ointoki flotatzaile baititu oinarri oraingo pasabidearen ahokaduraren ondoan dagoen ibilguzaren bi alboetan kokatuta. Ointokien neurria 1,5 x 1,2 m da oinplanoan, eta zimenduaren altuera 50 cm-koa da, haren gainean oinarria dago beste 50 cm-ra, eta han daude plaka albeolarraren muturrak.

0+066 eta 0+092 kilometro puntuen artean egingo den 1,5 m-ko zabalerako espaloiari dagokionez, kanalaren oraingo inpostaren gainean jarriko da zuzenean.

0+100 kilometro puntuan, eskuinaldean dagoen autobus geltokiaren ondoan, jartzekoa den oinezkoen pasabidean semaforoak eta argiak jartzeko aurreinstalazioa egingo da.

Obra egiteko 5 hilabeteko epea kalkulatu da.

1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Proiektuaren geografia eremua Arraia-Maeztuko udalerrria da; hain zuzen ere, Azazetako hiri zeharbidea. Eremu hori guztiz hiritarra da, eta horren ondorioz, oso antropizatua dago.



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, bi aukera kontuan hartu eta aztertu dira. Sustatzaileak azaldu duenez, aukerarik nabarmen eraginkorra eta inguru-neari kalte gutxiena eragiten diona da orain dauden plataformak handitzea oraingo zorua-ren aprobetxamenduaren bidez, beste edozein aukera txarragoa delako, beharrezkoa izango litzatekeelako trazadura eta zoladura berriak egitea natura ingurunearen inbasio handiagoa eta baliabide eta materialen kontsumo handiagoa eragingo luketenak, eta ez lioketenak onura garrantzitsurik ekarriko proiektuaren xedeari.

“0” alternatibak edo esku hartzerik ez daukanak (ez da aukeratu) esan nahi du A-132 erre-pidearen oraingo galtzada mantendu behar dela, eta horrek ez lituzke hobetuko zeharbideak orain daukan segurtasun gabeziak Azazeta zeharkatzen duten eta herri horretan sartzeko ezke-rrerata eta eskuinetara birak egiten dituzten ibilgailuen zirkulazioari dagokionez. Horrez gain, errepidearen bazter batetik bestera igarotzeko bidea gurutzatzen duten ibilgailuak eta pertsonak daude, bai eta oinezkoak bazterbideetatik ibiltzen direla ere.

Garraio publikoko baztergunerik ez dagoenez, zeharbidearen bazterbideetan gelditu behar dira bidaiariak igo eta jaitsi daitezten, eta horrek arriskua eragiten du. Gainera, beharrezkoa da antolatzea garbitegirako sarbideak, gune hori garrantzitsua delako Azazetara ura biltzera joan ohi diren pertsonentzat.

“1” alternatiba aukeratu da, eta lehenago azaldu denez, oraingo errepidearen plataforma handitu nahi da hauexek lortzeko:

- Ibilbidea oinezkoentzako albo espaloiez hornitzea, bermatzeko oinezkoak seguru ibiliko direla.
- Autobusentzako bazterguneak egitea bi norabideetan.
- Herrirako sarbideak mugatzea.
- Oinezkoentzako pasabide segurua egingo dela ahalbidetzea.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA - Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAlA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Arraia-Maeztuko Udala	
Azazetako Administrazio Batzarra	

Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Jasotako erantzunetan ikusitakoa laburbilduko dugu hemen (ingurumen eraginaren txostenean jasotako agirien kopia osoak erantsi dira):

- Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak dio proiektuak ez diela eragiten elementu edo higiezin babestuei, daukaten historia eta kultura balioaren ondorioz. Beraz, zerbitzu horren ikuspegitik, ez dago eragozpenik proiektua izapidetzeko.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak dio obraren eremuan orain arte ez dela aurkitu hondakin edo egitura arkeologikorik. Horrez gain, adierazi da ezen, baldin eta eraikuntza proiektuan bertan ezartzen diren kultura ondarearekin zerikusia daukaten babes neurriak betetzen badira, ez dela eragin arkeologikorik egongo.

- Kultura Ondarearen Zuzendaritzak dio proiektuak eta bere ingurumen agiriak behar bezala jasotzen dituztela arkitektura intereseko elementuak eta egoki tratatzen dituztela haien babesari dagokionez.

- Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi duenez, proiektuak ez die eragiten "nekazaritza balio handi" gisa kalifikatutako lurzoruei. Baldin eta Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroan inskribatutako landa bideak erabili behar badira, txosten teknikoa eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari.

- URA-Uraren Euskal Agentziak bere txostenean adierazi du ingurumen agiriak proposatzen dituen neurriak oso egokiak direla. URAREN txostenean ondorio hauetara iritsi dira:

- Ur arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, bai jabari publiko hidraulikoan bai polizia eremuan (100 m) egin beharreko jarduketak aurrera eramateko eta hondakin urak ibilgu publikoetara isurtzeko, ezinbestekoa izango da alde aurretik administrazio hidrauliko eskumendunak (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) baimena ematea, zeina Uraren Euskal Agentzian izapidetu beharko baita. Aurreratzen da esatean ez dela onartuko hegalak jartzea JPHren gainean, tarte kanalizatuan. Orain dagoen zeharkako pasabidearen zonan, JPH horren okupazioak kasu batzuetan baino ezin daitezke baimendu; hain zuzen ere, oinezkoak pasa daitezkeen beharrezkoa den gutxieneko handitzeetan, eta alde aurretik justifikatuta.

- Ur bilketetarako, ura gainazalekoa zein lurrazpikoa izan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren alde aurreko behin-behineko emakida edo baimena beharko da.

- Ingurumen zaintzako programaren kontrol neurriei dagokienez, proposatzen da aukera egon dadila uraren kalitate kontrolak egiteko obren eremuko ibilguan, uretan gora eta uretan behera. Kontrol horietan, parametro hauek aztertu behar dira: pHa, eroankortasuna, solidoak esekiduran, hidrokarburoak, olioak eta koipeak.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen eragin nagusiak. Natura 2000 sarean sortutako eragin negatiboak

Arestian azaldu den bezala, guztiz urbanizatutako eremu batean gauzatuko da proiektua, Azazetako zeharbidean. Errepidearen area jada aldatuta mugatzen da jarduketak; hain zuzen ere, Berrón ibaiaren albora.

Ez da espero eragin nabarmenik paisaian, landaredian, lurzoruetan, ez eta beste ingurumen osagai batzuetan ere. Organo eskumendunek esandakoaren arabera, ez da espero kalterik eragingo zaienik historia eta arkitektura ondarearen eta arkeologia ondarearen elementu inbentariatu edo katalogatuei.

Edonola ere, kontu handiz ibili beharko da Berrón errekaen urak ez daitezen kaltetu, tarte honetan kanalizatua eta urbazterreko zuhaixka eta zuhaitz egokirik gabe igarotzen delako. Horregatik, eta URA Uraren Euskal Agentziak gomendatzen duenaren arabera, egoki irizten zaio uraren kalitate kontrolak egiteari azaleko korrontean eta hari loturiko arrantza faunan egon daitezkeen gorabeherak baloratzeko.

Natura 2000 Sarean ez da kalterik eragingo, Berrón ibaia Birgaratik aurrera baitago katalogatua KBE; hain zuzen ere, zenbait kilometro jarduketa gunearen uretan behera.

4. Babes eta zuzenketa neurriak

Ingurumen agiriko 7. apartatuan aipatu dira proiektua ingurumenean txertatzeko zenbait prebentzio eta zuzenketa neurri, zeinak zuzentzat jo baititugu, oro har. Beraz, egokia da haiek ezartzea, agiri horretan azaldutakoarekin bat etorritz. Gure ustez, ordea, neurri osagarri batzuk hartu behar dira, eraginpeko eremuan ingurumen ondorio negatiborik izan ez dadin edo ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen. Hona hemen:

A) Obrak hasi aurretik sustatzaileak abisua emango dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, obren ingurumen jarraipen egokia egin dadin eta ingurumen eraginaren txosten honetan eta ingurumen agirian ezarritakoa betetzen dela egiaztatu dadin.

B) Mailegu zonak edo hondakindegia erabiltzeko, ingurumen organoaren aurretiazko baimena jaso beharko da, modu horretan kokalekuen egokitasuna ebaluatzeko eta ingurumenaren gaineko eraginak arindu eta zuzenduko dituzten lehengoratzeko neurriak ezartzeko.

C) Ez dira jarriko zerbitzu gunek, makinaria parkeak edo produktu kutsagarriak biltzeko eremuak sare hidrografikotik gertu (Berrón ibaia).

D) Obretaraino eta ekipamendu eta materialen kokalekuetaraino egindako lurrezko bideak, obra amaitu eta gero jada beharrezkoak ez badira, itxi egin beharko dira, eta, behar izanez gero, baita landareztatu ere.

E) Sustatzaileak Berrón ibaiaren kalitatearen jarraipena eta kontrola egingo ditu, eta horretarako, laginak hartu eta uren aldizkako analisiak egingo dira, hilean bi aldiz behintzat. Analisisietan, gutxienez parametro hauek erregistratu beharko dira:

- Temperatura
- PH
- Guztizko solidoak. Solido esekiak
- Oxigeno disolbatua
- Eroankortasuna
- Oxigeno eskari kimikoa (OEK)
- Nitrogeno organikoa eta amoniakoarena (GKN)
- Nitratoak eta nitritoak
- Guztizko fosforoa (GP)
- Hidrokarburoak, olioak eta koipeak

Berrón ibaian ur laginak hartzeko gunek zein izango diren zehaztuko da sustatzaileak eta ingurumen organoak tokia bisitatu eta gero, eta bi gune hauetan, behintzat, egongo dira: jardun esparruaren uretan behera eta uretan gora.

Hartutako laginen emaitzak ingurumen organo honi eta eskumena duten administrazioei igorriko zaizkio aldian-aldian.

F) Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzailak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi es-tankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabi-litakoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio haiek. Debeku hori beste haue-tara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurra eta abar; horiek guztiak hondakin-degi edo zaborte-gi baimenduetara eramane beharko dira. Lehendik dagoen biltegia kentzean ateratzen diren eraikuntza eta eraispen hondakinak, berriz, Eraikuntza eta Eraispen Hondakinen Sorrera eta Kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

G) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

H) Egokitzen jotzen da foru aldundi honetako Errepide Zerbitzuak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak modu koordinatuan garatu beharreko ingurumen arloko jarraipen lana egitea, eraikuntza fasean zehar, aplikatutako ingurumena zaharberritzeko neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna jakiteko eta ebaluatzeko eta, gabeziak gertatuz gero, horiek zuzentzeko. Horri dagokionez, jarduketak bukatu ondoren, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako ingurumen neurriak ondo bete direla egiaztatzeko.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juri-dikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "A-132 errepidea Azazetatik igarotzean urbanizatzeko eraikitze proiektua"ren ingurumen eraginaren txostena egitea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, inguru-men eraginaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen eraginaren txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 27a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN